

NEIKER

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



Esnetarako behi-aziendetan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko gomendioak

ALBAITARIAREN
ROLA

2021. urtea



Argazkia Enertiz Uriarte

Eskuragarri dauden antibiotiko batzuekiko edo guztiekiko erresistenteak diren bakterioak agertzea eta barreiatzea mehatxu sanitarioa da

Eskuragarri dauden antibiotiko batzuekiko edo guztiekiko erresistenteak diren bakterioak agertzea eta barreiatzea mehatxu sanitario eta erronka sozioekonomiko bihurtu da mundu osoan. Antibiotikoak gehiegi edo modu desegokian erabiltzeak, bai pertsonengan, bai animaliengan, arazoa biziartzen du. Zehazki, aziendetan antibiotikoak erabiltzeak lagundu egiten du ustategietan bakterio erresistenteak agertzen, eta horrek, animaliei eta inguruneari



eragiteaz gain, bakterio erresistente horiek gizakiengana iristea eragin desake (elikagaien bidez edo ingurumenaren kutsaduragatik).

Giza medikuntzaren eta albaitaritzaren elkarlana funtsezkoa da antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko, haien eraginkortasuna zaintzeko eta pertsonen eta animalien osasuna babesteko.



Gaur egun ohikoak diren estrategia terapeutikoek etorkizunean eraginkor izateari ustea saihesteko, jarraitu printzipio gidari honi antibiotikoen erabilerari dagokionez: “Ahal den gutxien, behar bezainbeste”.

- Antibiotikoen **erabilera desegokiak bakterio erresistenteak** agertzen laguntzen du.
- Antibiotikoekiko erresistenteak diren bakterioak agertzeak haien **eraginkortasuna arriskuan** jartzen du.
- Bakterio erresistenteen agerpena **gaixotasunak prebenitzeko eta kontrolatzeko** praktika egokiekin mugatu daiteke.
- Behar izanez gero, antibiotikoak **arduraz erabili behar dira**, eraginkorrak izan daitezten.



Gaixotasunak murrizten badira, antibiotikoak erabiltzeko beharra ere murriztuko da.

Animalien osasun egoera ona funtsezkoa da haien ongizatea bermatzeko, errendimendu optimoa lortzeko eta elikagai seguruak ekoizteko.


Ustategi bakoitzerako Osasun Plan espezifiko bat ezartzeak aziendaren osasun egoera orokorra hobetzen lagunduko du



Ustategiko Osasun Planak ustategi bakoitzerako berariazko erabilera-estrategia on baterako oinarriak ezartzen ditu, azken helburua gaixotasunak prebenitzea edo haien ondorioak gutxitzea izanik.

Planak hauek jaso behar ditu:

- Ustategian eragina duten edo izan dezaketen infekzio eta gaixotasun nagusiak identifikatzea.
- Prebentziorako protokolo espezifikoak definitzea:
 - Biosegurtasuna eta higieena.
 - Sistema immunea indartzea: Txertaketa Plana, oritza ondo hartzea
- Gaixotasun bakoitza detektatzeko, tratatzeko eta kontrolatzeko estrategien deskribapena
- Animalien osasuna hobetzeko helburuak identifikatzea.
- Osasun adierazleen eta tratamenduen erregistroak aldizka jasotzeko eta berrikusteko sistema bat ezartzea.
- Adierazleen jarraipena eta ekintza zuzentzaileen plana.





Esnetarako behi-aziendetan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko gomendioak. ALBAITARIAREN ROLA

Neurriak

1 Prestatu abeltzainarekin batera ustategiko Osasun Plan espezifiko bat

- Identifikatu aziendarengan eragina duten edo izan dezaketen infekzio eta gaixotasun nagusiak.
- Definitu prebentziorako jarraibide espezifikoak:
 - biosegurtasun eta higiene protokoloak
 - oritza emateko protokoloak
 - txertaketa Plana (amentzat zein txahalentzat)
 - mamitisaren kontrako lehortze-terapia selektiboa egiteko aukera ebaluatu
- Definitu gaixotasun bakoitzerako tratamendu eta kontrol estrategiak.
- Identifikatu hobetzeko helburuak.
- Ezarri sistema bat osasun eta ekoizpen adierazleen erregistroak aldizka jasotzeko eta berrikusteko.

2 Ebaluatu tratamendu antibiotikoa hartzeko beharrak

- Ezagutu ustategiaren osasun egoera eta sustatu gaixotasunen detekzio goiztiarra.
- Diagnostikatu anamnesia, adierazpen klinikoak eta aziendaren gaixotasunen prebalentziaren historikoa oinarri hartuta, eta, hala badagokio, teknika analitiko gehigarrien bidez (bakterioen kultiboa).



Helburuak

- Gaixotasunak prebenitzea edo horien ondorioak minimizatzea.
- Ekoizpen optimoak lortzea.
- Antibiotikoak erabiltzeko beharra murriztea.

- Antibiotikoak beharrezkoak badira soilik agindu.



Neurriak

3 Aukeratu antibiotiko egokia

- Egin sentikortasun probak (antibiograma) antibiotiko egokiena aukeratzeko, batez ere berriz gaixotzean edo akats terapeutikoetan.
- Hautatu aukeran dauden antibiotikoen artean espektro murriztena duena.
- Jarraitu EMA-AMEGen gida animalien antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko, eta, ahal dela, saihestu giza medikuntzarako kritikoak diren antibiotikoak.
- Aztertu administratzeko biderik egokiena (**1. lokala** > **2. parenterala** >> **3. ahozkoa**).
- Saihestu hainbat antibiotikoren konbinazioak; beharrezkoa izanez gero, ziurtatu ez dagoela kontraindikaziorik edo interakziorik haien artean, preskribatu soilik behar den tratamendu kantitatea/denbora eta adierazi itxaronaldi egokia.
- Saiatu ez erabiltzen denbora luzez antibiotiko bera indikazio bererako.

4 Aholkatu antibiotiko bakoitzaren erabilera egokiari buruz

- Ziurtatu abeltzainak posologia (tratamenduaren dosia eta iraupena), emateko modua eta itxarote-denbora ezagutzen dituela, eta behar bezala aplikatzen dituela.

5 Berrikusi erregistroak eta Osasun Plana

- Aztertu aldian-aldian tratatutako animalien osasun egoera eta agindutako tratamenduen egokitasuna.
- Berrikusi erregistroak eta eguneratu Osasun Plana.

Helburuak

- **Tratamendurik eraginkorrena agintzea, zuhurtziaz erabiltzeko gidetara egokituta.**
- **Infekzioa kontrolatzea.**
- **Erresistentziak barreiatzeko arriskua minimizatzea.**
- **Antibiotikoak behar bezala aplikatzen dira, pertsonentzat, animalientzat eta ingurumenarentzat arriskuak minimizatuz.**
- **Etengabeko hobekuntza.**
- **Tratamendu antibiotikoak: Birpentsatu, Ordeztu, Murriztu.**



Esnetarako behi-aziendetan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko gomendioak. ALBAITARIAREN ROLA

**ANIMALIA
OSASUNTSUA**

**ANIMALIA
OSASUNTSUA ALA
GAIXOA?**

**ANIMALIA GAIXOA
ETA "KONTAKTUAN
EGON DEN ANIMALIA"**

**ANIMALIA
OSASUNTSUA**

**GAIXOTASUNA
PREBENITZEA**

**GAIXOTASUNEN
DETEKZIOA**

**OSASUN-EGOERA
BERRESKURATZEA**

**OSASUN-EGOERA
HOBETZEA**

OSASUN PLANA

- Biosegurtasuna
- Maneiua
- Higienea
- Txertaketa plana

DETEKZIO GOIZTIARRA

- Zaintza
- Detekzioa
- Diagnostikoa
 - Laginak hartzea
 - Laborategiko analisisa (mikrobiologia eta antibiograma)

TRATAMENDUA

- Antibiotikoa hautatzea
- Dosia
- Iraupena

**BERRIKUSITAKO
OSASUN PLANA**

- Erregistroak berriskustea:
 - Infekzioen intzidentzia
 - Antibiotikoen erabilera
 - Erresistentziak
- Biosegurtasuna, maneiu, higie, eta txertaketa plana
- Antibiotikoen erabilera: Birpentsatu, ordeztu, murriztu.

**Emitza:
NEGATIBOA**

**Emitza:
POSITIBOA**


• **ANIMALIAREN
OSASUN-EGOERA**

• **HELBURUA**

• **MEKANISMOA**

Albaitariak animalien osasuna eta ongizatea sustatzeko neurri guztiak hartu behar ditu, baita gaixotasunak prebenitzeko, identifikatzeko eta tratatzeko ere.

Antibiotikoak zuhurtziaz agintzeko jarraibideak



Bermatu animalien osasun ona

- Eman arreta gaixotasunen prebentzioari eta kontrolari, etengabe berrikusten den Ustiate-giko Osasun Plan baten bidez.
- Diagnostiko goiztiarra sustatu.

Agindu antibiotikoak soilik beharrezkoa bada

“Ahal den gutxien, behar bezainbeste”

Aukeratu antibiotikoa zuhurtziaz

- Egin sentsibilitate testak (antibiogramak) antibiotikoak agindu aurretik.
- Jarraitu EMA-AMEGen gida animaliangan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko, eta, ahal dela, saihestu giza medikuntzarako kritikoak diren antibiotikoak.

Erabili antibiotikoak zuzen

- “Ez gehiago, ez gutxiago”: Ziurtatu posologia egokia aplikatzen dela (iraupena eta dosifikazioa) Fitxa Teknikoaren arabera (<https://cimavet.aemps.es/>)

Aplikatu errotazio programak


- Sentsibilitate proben emaitzek horretarako aukera ematen badute, saihestu antibiotiko bera etengabe eta denbora luzez erabiltzea.

Egin etengabeko jarraipena

- Berrikusi aldizka erregistro guztiak eta egokitu Osasun Plana etengabeko hobekuntza lortzeko.
- Tratamendu antibiotikokoak:
 - Birpentsatu
 - Ordeztu
 - Murritzatu

Behi-aziendaren antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko kategorizazioa (EMA – AMEG)

(erresistentziak areagotzeak osasun publikorako duen arriskuan eta albaitaritzako medikuntzan erabiltzeko beharretan oinarrituta)



D Kategoria
Lehen aukera, baina soilik terapia antibiotikoa behar bada
Aminoglikosidoak (espectinomina bakarrik) espectinomina
Aminopenizilinak, β-laktamasaren inhibitzailearik gabe amoxicilina ampicilina
Espekto murriztuko penizilina naturalak (β-laktamasekiko sentikorak) benzatina bencilpenicilina bencilpenicilina benzatina bencilpenicilina procaina penetamato iohidrato
Penizilina anti-staphylokokoak (β-laktamasekiko erresistenteak) cloxacilina
Sulfonamidak, folatoaren ibilbidearen inhibitzaileak eta konbinazioak sulfadiazina/trimetoprima sulfadoxina/trimetoprima sulfadimetoxina sulfadimidina
Tetraziklinak clortetraciclina doxiciclina oxitetraciclina tetraciclina

C Kategoria
Erabili D Kategoriako antibiotiko eraginkorrik ez dagoenean
Aminoglikosidoak (espectinomina izan ezik) apramicina dihidroestreptomicina frameticina gentamicina kanamicina neomicina paromomicina estreptomicina
Aminopenizilinak, (β-laktamasaren inhibitzaileekin batera) amoxicilina/clavulánico
1. eta 2. belaunaldiko zefalosporinak eta zefamizina cefacerilo cefalexina cefalonio cefapirina
Fenikolak florfenicol tianfenicol
Linkosamidak lincomicina pirimicina
Makrolidoak eritromicina gamitromicina espiramicina tildipirosina tilmicosina tulatromicina tilosina
Rifamizina (rifaximina bakarrik) rifaximina

B Kategoria
Azken aukera, patogenoaren identifikazioan eta sentikortasunean oinarritua (antibiograma)
3. eta 4. belaunaldiko zefalosporinak, inoiz ez β-laktamasaren inhibitzaileekin batera cefoperazona cefquinoma ceftiofur
Fluorokinolonak eta beste kinolona batzuk danofloxacin enrofloxacin flumequina marbofloxacin
Polimixinak colistina

A Kategoria
EZ ERABILI: EBn ez daude abeltzaintzarako baimenduta
Azken belaunaldiko zefalosporinak, 3. eta 4. belaunaldiko zefalosporinak β -laktamasaren inhibitzaileekin batera, Carbapenemes, Glicopeptidoak, Gliciliclinak, Lipopeptidoak, Monobactams, Oxazolidinonak, Riminofenazina, Sulfonak, Estreptograminak, tuberkulosirako eta beste mikobakterio batzuetarako antibiotikoak, beste batzuen artean.

NEIKER₁

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

